



3 POLITIKA

Aurrekontuak aurkezteko eskaera egingo du PSE-EEK

Bihar, Udaltzaratza izango da, arratsaldeko 18:30etan. Honetan besteak beste, PSE-EEK aurkeztutako mozioa eztabaidatuko da. Prentsa ohar baten bidez alderdi sozialistak jakinarazi duenez, Udaltzaratza taldeari hilabeteko epea ematen dio 2013ko aurrekontuak aurkezteko eta eskaera zuzena egingo du. Oposizioan zaudenean PSE-EEKi gogor salatzen zitzaizuten epeak ez betetzea eta beraz, 2012ko abenduaren 31a baino lehen onartu behar direla azpimarratzen du.



Langabetuen plataformako kideak asteazkenetan biltzen dira etxe kaleratzeen inguruko informazioa jaso eta honen inguruan hausnartzeko.

5 ELKARRIZKETA

Arramazka taldeak diska berria du, "Argilunpetan"

Urte eta erdiko lanaren ondoren Arramazka taldeak uztai-lean grabatu zuen Iruñean disko berria, "Argilunpetan". Taldekide bati egin dioten ebakuntzaren ondorioz, udaberrirako atzeratu dute 9 kantu jasotzen dituen lan auto-produzituaren aurkezpena. Aitzol Lasarekin mintzatu gara Arramazkaren lan eta bide berriari buruz.



Etxe kaleratzeak gelditzeko taldea

Langabetuen Plataformak bat egin du Kaleratzeak Stop! taldearekin

Herriko langabetuen plataformak bat egin du etxe kaleratzeak gelditzeko Kaleratzeak Stop! ekimenarekin. Gaiaren inguruan hausnartzeko Villa Mirentxun abenduaren 14ean 19:00etan dokumental baten emanaldia eta solasaldia antolatu dute.

Langabetuen plataformak bat egin du Kaleratzeak Stop! ekimenarekin eta taldea eratzten ari dira Lasarte-Orian gerta daitezkeen kasuen aurrean erantzuna emateko. Eratze prozesua Donostiako Kaleratzeak Stop! taldearen gidaritzapean burutzen ari dira eta Lasarte-Orian etxea galtzeko arriskuan dauden herritarrei dei egiten diete parte hartzeko.

Langabeziaren ondorio izan daiteke hipoteka ordaintzeari utzi behar izana eta egoera honetan herritar asko egon daitezkeela diote: "Langabeziaren gaudenon hurrengo arazoa izan daiteke hipoteka ordaintzeari uztea, etxea galtzeko arriskuan edonon egon daiteke egun".

Hau dela eta Donostiako taldearekin harremanetan jarri ziren besteak beste, herrian kasu bat zegoela jakin zutenean: "persona honen kaleratzea gelditu da udalaren parte hartzeari esker, hala ere udalari zuzenean eskatu zitzaion egoera honen aurrean erantzun bat emateko". Hau izango zen herrian gauzatuko zen lehen kaleratzea azaltzen dutenez, izan ere, "jende asko dago bankuekin kaleratzeak ekiditeko kudeaketan". 2012 urteko lehenengo sei hilabetetan, 2.661 kaleratze izan dira EAEn eta 515 Gipuzkoan.

Solasaldia

Abenduaren 14ean 19:00etan



Kaleratzeak Stop! plataformak sinaturak bilduko ditu herrian.

Villa Mirentxun Bartzelonan gertatutako lehen kaleratzearekin egindako "La Plataforma" dokumentalaren emanaldia eta solasaldia egingo dira. "Oinarritzakoa da jendeak ahalik eta informazio gehien izatea egoera honen inguruan eta horretaz gain, Kaleratzeak Stop! taldeak, momentuz Donostikoaren bitartez, abokatuak eta aholkulariak ditu laguntza emateko prest".

Langabetuen plataformatik deia luzatzen diete herritarrei eurekin harremanetan jartzeko "bankura hitz egitera joateko

aholkulariak daude eta laguntza garaiz eskatuta irtenbideak aurki daitezkeela jakin behar da". Egoera honetan daudenei zein aholkularitza lanetan boluntario aritzeko prest daudenei Donostiako Kaleratzeak Stop!ekin harremanetan jarzea gomendatzen diete stopdes-haucios@gmail.com bidez edota 669 428 598 telefonoan.

Horretaz gain, sinaturak bilduko dira hainbat lekutan kaleratzeak ahalbidetzen dituzten 1909ko mailegu legea eta Epaiketa zibilen legea kentzeko eskatuz.

ALCAR
VENTANAS

Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2.
(Lehenko Doble J)

Zuregandik hurbil



ERAKUSKETA

Plaza Oriamendi, 2
(Lehenko Doble J)
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

TAILERRA

Ibaiondo, 4
erdisotoa 5-A

Tel: 943 37 78 68

tienda@ventanasalcar.com


www.ventanasalcar.com

www.facebook.com/VentanasAlcar



Jarrai gaitzazu Facebooken!
gure jarraitzaile artean
laister hasiko gara
opariak banatzen

Me gusta



Adituak dio

Aitzol Lasa

Multimusikalaren sustatzailea

Egun gogoangarria izan zen 2001eko abenduko Inuzente egun hura; ordurako, urte eta erdi lehenago sortu genuen TXORIMALO Gazte Kolektiboak lanean ziharduena herrian bizitu genuen aseptikotasun egoerari aurre egiteko bidea. Eta bai aurre egin ere; egun, hura sortu genuenok beste esparru batzuetan dihardugu, baina Kamioi Rock, txorimaloen moskeo kanpaina, Multimusikalean HURTOko lagunak mazak hartuta Ostatu Berrin telebistak txikitzen ikustea, ia udaletxea hartu genuenok hura... eta beste hainbeste gogoratzean irribarra graffititzen zaigu aurpegiari. Denetarikoak jasan eta entzun behar izan ditugu MULTIMUSIKALEan jardun dugun kideok: debekua, zentzurik gabeko diru eskaerak, diru lapurretak (PSOEk 300 euro lapurtu zizkigun udalaren izenean, antza Andatza plazan ospatu genuen jaialdian Valentziatik etorritako lagunak prestatutako paella egiteko erabiltako suak lurra zikindu omen zuelako...) garaxiak. Bai, Zebollasek, inork aukeratu gabe alkate izan zen horrek garraxika amaitu zuen orain bi urte lekua adostearen harira udalean egin genuen bilera. Argi izan dugu ordea beti etsaiaren koherentzia kexatzea "hay que hablar en euskera" baten parekoa dela. PSOE eta beren lagunek gure determinazioa areagotu besterik ez zuten egin jarrera horiekin.

Bestalde, badira herriari adierazi nahiko genizkioken hainbat gauza; jaialdia baloratua eta gozatua izan dela sentitu dugu, baina onartu beharra dago ein batean haserako helburu antikomertzial eta kolektiboa ez dela bete. Herriarrak MULTIMUSIKALA urtean behin kontsumitzaera ohitu gara, nolabait atzetik duen koherentzia nahia eta lana ahanztiz. Eta honek askotan min eman digu, benetan. Lerro hauetatik besarkada bat bidali nahiko nieke TXORIMALOren unitate autonomoan kide izan garen guztiei, eta baita gure lana babestu duten guzti horiei ere. Aurtengoan MULTIMUSIKALA xumeagoa izango da, egun bakarrekoa eta tabernetan oinarritua, baina baditu alde onak ere, azken 10 urteetan lanean jardun dugunok (azkenean!!) jaialdia osotasunean gozatzeko aukera izan dugula kasu. Lehengo urteko edizioako azken blog sarrerari esan genuen moduan "denok dantzatza behartuta gaude, aurrera egiteko hariaren bila, luze baitoa gaua". Ea Berri Txarrak jaialdira ekartzeko ametsa inoiz egi bihurtzen dugun (eh Taxio! Ta Kerobia ebai jajaj). AUPA TXORIMALO ESPIRITUA TA GORA MULTIMUSIKALA!!

Kultura herrikoia

Iaz Multimusikalarekin batera Euskal Jaia ospatu zen. Aste-buru luzea izan zen, ekintzaz beteta. Kontzertuak karpan egin ziren Okendo plazan bertan eta Multimusikala modu handian ospatu zen. Hamar urte dira herriko gazte talde baten ekimenez Multimusikala antolatzen dela eta bidea, noski, ez da erraza izan.

Herriko gazteen artean errotuta dagoen jaialdia dela esan daiteke eta egin ezean, ziur askok bere falta somatuko luketela. Ez da erraza egitaraua antolatzea, lehenengo sustatzaileentzat ez zen izan eta oraindik ere bere zailtasunak izaten ditu, baina eutsi dio urteko hitzorduari. Herriarren, gazteen ekimena izan zen Multimusikala, elkarlanean sortu eta gauzatutakoa, kultura doan eta denontzat helburuarekin.

Abenduak 15, larunbatean izango da 10. musika jaialdia eta bere hastapenetara bueltatzen dela esan dezakegu, musikak taberna ezberdinetan hartuko du eta protagonismoa.

Herritarrei galdetuta Multimusikala bera ondo ikustez gain, tabernetara bueltatzea eskertzen dute batzuek, hasierako xarma izango omen dute berriro kontzertuek, taldeen eta ikusleen arteko gertuko harremanak sortuko festarako eta gozamenerako giro aproposa. Egitarauaren baitan manifestaldia eta guzti antolatu da "Kultura aske eta herrikoia bultzatuz" leloarekin. Hasi motorrak berotzen eta prestatu musika festa handiari harrera egiteko, doan, herritar guztien eskura.

Hitz eta pitz

Zer iritzi duzu multimusikalari buruz?



Egoitz Zelaia - Xabi Urruzola

Oso ideia berritzailea izan da, finkatu edo errotu egin dena, baina arrisku bat duena: gauza handi bihurtzea. Bere dimentsioa da polita. Joera daukagu dena handitzeko, gauza handiak egiteko, baina ekimenaren xarma bere xumean dago. Bere horretan da ederra eta aldiz, gauza handiak erori edo hustu egiten dira bapatean. Ondo da beraz berriro tabernetan antolatzea.



Eneko Aranburu

Oso ondo dago. Herri honetan, agian egon zen mugimendu gehiago, baina, gaur ez dago hainbeste, eta beraz hemen gazteek lehen sortutako ekimen bat mantentzea ondo iruditzen zait. Gainera gazteek ideologia batekin sortutakoa da, eta saiatzen da auto-gestioa eta abarri eusten. Kontuan hartzekoa da, zer egin zuten, guk ere mugitu eta zerbaite antolatzeke. Parte hartuko dut.



Leire Amiano

Oso mugimendu indartsua izan da, izan ere, musikaren bidez gauza asko transmititu daitezke eta musikaren inguruan elkartzea garrantzitsua iruditzen zait. Nik uste auto-gestioa dela gizartea iraultzeko bidea, buelta emateko tresna, bai horrelako mugimendu txikiak eta baita handiagoetan ere. Bete bezala hor egongo naiz eta parte hartuko dut. Lagundu ere behar bada lagunduko dugu.



Pili Etxebeste

Taberna baten gainean bizi naiz, baina, oso ondo ikusten dut gazteek kontzertuak egitea. Gazteek ere dibertsioa behar dute, beraientzako gauzak egitea. Beraiek antolatzen badituzte ederki, beti ere, ordutegiak errespetatu eta herritarrek molestak ez baldin badituzte. Taberna barruan badaude ez dago arazorik, gazteek beharrezko dituzte horrelakoak. Denok izan gara gazte.

Iruditan



2002an aurkeztu zuen Txorimalo kolektiboak lehen gau multimusikala.

Musika jaialdi herrikoia

Txorimalo kolektiboak 2002ko abenduaren 23an aurkeztu zuen lehen gau multimusikala. Hamar urte igaro dira lehen musika jaialdia antolatu zenetik eta aurtengoan bere hastapenetara bueltatuko dela jakitera eman dute antolatzaileek. Aurtun egun bakarreko egitarau zabala izango da eta tabernetan burutuko dira kontzertu guztiak. Kalean, hala ere, edukiko du protagonismoa jaialdiak, izan ere, manifestaldi "musikala" izango da larunbatean 18:00etan "Kultura aske eta herrikoia bultzatuz" lelopean. 17:00etan berri, Okendo plazan izango da graffitak eta rap doinuak entzuteko aukera.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366 858, 943 371 448, G-20407557 **Legezko gordailua:** SS513/93 ISSN: 1134-0053 **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800 **Erredakzioa:** Nerea Eizagirre, Jon Altuna Iza, Maider Azurmendi, Jon Altuna Egitegi **txintxarri@txintxarri.info txintxarri@ttakun.com** **Publizitatea:** Arantza Artola, **publizitatea@ttakun.com** **Administrazioa eta banaketa:** **administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.** Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

UDALA

2013ko aurrekontuak eskatzen ditu PSE-EEK

PSE-EEK udal gobernuari aurrekontuak eskatu dizkio mozio bidez

Udal talde sozialistak hurrengo udalbatzarrean eztabaidatzeko 2013ko aurrekontuak eskatzeko mozioa aurkeztuko du. Honen arabera hilabeteko epea ematen dio udal gobernuari aurrekontu proiektua aurkezteko.

Lasarte-Oriako PSE-EEK mozioa aurkeztu du hurrengo udalbatzarrean eztabaidatua izan dadin. Honetan udal gobernuari eskatzen dio 2013rako aurrekontuak lehen bait lehen aurkezteko.

Herriko udal talde sozialistak ohar baten bidez azaldukoaren arabera, "gobernuan daudenen ardura garrantzitsuenetakoa bat da diru publikoa kudeatzen duen neurrian, behar bezalako aurrekontu proiektu bat garaitzekoa".

Iaz udal gobernuak 2011ko aurrekontuak ez zituela aurkeztu salatzeko eta 2012koak "oso berandu", ekainaren 18an, onartu zirela. Azken honen harira talde sozialistak Jesus Zaballozen izenean, lotsagarritzat jotzen



Ekainean 2012ko aurrekontuak aurkeztu zituen udal gobernuak.

du gainera udal gobernuak hauek burutzeko kanpoko enpresa bat kontratatu izana eta hala ere, sei hilabeteko atzerapenarekin aurkezteko.

"2013rako aurrekontuak 2012ko abenduaren 31a baino lehen onartu behar dira" izan ere, oposizioan zeudenean PSE-EEri gogor salatzeko zitaion epeak ez betetzea eta hain zuzen "hau da orain egiten ari direna".

Prietoren hitzak gogora

Ohar honetan sozialistek Plataformako Ana Isabel Prietok oposizioetik esandakoak ere

jasotzen dituzte. Prietok bere haserrea azaltzen zuen aurrekontu proiektua ez edukitzeagatik eta udal gobernutik atera eta etxeko lanak garaitzeko prest daudenei lekua uzteko esaten zien. "Orain zer egin behar du udal talde sozialistak, udal gobernuaren dimisioa eskatu?"

PSE-EEK mozio honen bitartez udal gobernuari 2013ko aurrekontuak hilabete bateko epean aurkezteko eskatzen du eta Ogasun batzordea hamabost egunetan elkartzeko lehen proiektu hori eztabaidatu eta landu ahal izateko.

PARTE-HARTZEA

Inauterietako gaia aukeratu

Lasarte-Oriako Udalak, 2013. urteko Inauterietako begira, gaia hautatzeko herri galdeketa jarri du martxan. Lasarte-Oriako etxe guztietara heldu da proposamenak biltzeko eskuorria eta hau udalal jarritako postontzi berezietan utzi behar da. Hauek jasotzeko azken eguna igandea izango da, abenduak 16a.

AMARAUN KLUBA

Olentzeroren etxera irteera

Abenduaren 22an Olentzeroren etxea ezagutzeko irteera antolatu du Amaraun klubak. Honetan parte hartu ahal izango dute 2005 eta 2008 urte artean jaiotako haurrek biak barne. Autobusa Zumaburuko autobus paradiatik aterako da 8:45ean eta buelta 14:30ean izango da hortaz, umeei hamaiketako eta bazkaria eraman beharko dute. Ttakuneko bazkide ez direnek 22 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkideek 19 euro. Guztira 40 lekua daude beraz antolatzaileek izena ahalik eta azkarren ematea gomendatzen dute.

DANOK KIDE

Jaiotza lehiaketa

Danok Kide elkarteak, ohi bezala jaiotza lehiaketa antolatu du. Honetan, banaka edo taldeka har daiteke parte baina lan bakarra aurkeztuz. Jaiotzak, gehienez, 80x60 cm-tako neurriak izan behar ditu eta, batez ere, ez da onartuko hondo sendorik ez duen jaiotzarik. Aurreko urteetako lehiaketetara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Jaiotzarekin batera, gutunazal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzirik entregatu behar da. Jaiotzak abenduaren 20 eta 21ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara aurkeztu behar dira Danok Kideren egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13 zenbakian. Antolatzaileen esanetan jaiotzak ikusgai izango dira San Pedro parrokian eta sari banaketa urtarrilaren 1ean egingo dute.

UDALA

Irudi korporatiboa hautatu

Udalaren irudi korporatibo berria hautatzeko lehiaketa martxan du udalak. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilak 3 izango da eta irabazleak lanagatik 3.000 euroko saria eskuratuko du. Lehiaketa honetan edozeinek parte har dezake eta oinarriak www.lasarte-oria.org web orrian topa daitezke. Aurkezten diren lan guztiek udalal erakusketa moduko bat antolatzea aurrekusten du eta sarean zintzailikatuko ditu ere herritarrek euren gogokoena bozka dezaten. Honetan parte hartzeko deia luzatzen dute udaletatik.

ERAKUSKETA

Marrazketa ikasleen lanak ikusgai

Herriko Brancussi marrazketa akademiako ikasle beteranoei euren lanak jarri dituzte ikusgai Manuel Lekuona kultur-etxe-ko kafetegian eta erakusketa aretoan. Azken hamabi urtetan egindako lanen bilduma da eta bertan ikasle bakoitzaren garapena ikus daiteke. Horretaz gain, lehiaketetara aurkeztutako lanak eta saritutakoak ere bertan dira.

Erakusketa ikusgai izango da Abenduaren 21a bitartean 18:00etatik 20:00etara astelehenetik ostiralera bitartean.



Erakusketa abenduaren 1ean jarri zuten ikasleek.

Oroimen historikoaren aldeko taldea

Lasarte-Oriako Oroimen Historikoaren aldeko taldearen aurkezpen ekitaldia izango da ostegunean abenduaren 13an, 19:30ean Villa Mirentxun.

Herritar batzuek Islada ezkutatuak Oroimen Historikoaren aldeko taldea sortu dute "gure herriko historia interesatzen zaigun talde bat gara. Gure herriko historia hurbila, batez ere 1936tik aurrerakoa".

Taldeko kideek azaltzen duten moduan batez ere 1936 urtetik aurrera gertatutakoaren jakin minak mugitzen ditu: "gure aurrekoek kontatu dizkiguten pasadizoetan sakontzea nahiko genuke. Beraiei gertatutakoak, familiekoei, auzokoei..."

Taldearen helburua "isilpean pasa diren gertaera horiek argitzea eta argitaratzea da, izan ere, historia irabazleek idazten dute eta memoria historikoa herriak idatzi eta kontatu gabeko historia hau, azaleratu, argitaratu, zabaldu eta jakitera



Iñaki Egaña erdian, izango da hizlari Villa Mirentxuko aurkezpen ekitaldian.

ematea da gure helburua".

1936. urtea hartu du taldeak abiapuntutzat izan ere gerra garaian eta gerra ostean "gurean gertatu zirenak arakatzeko saiaturako gara, ezagutu eta ezagutzera emateko eta bakoitzari dagokion estatusa emateko, behar bezalako errekonozimendua eskaini eta jasandako kalteak aitortzeko".

Aurkezpen ekitaldia

Taldea irekia da eta edozeinek parte har dezake honetan, halaber garaiko

testigantzak jasotzen lagundu nahi dutenei gonbitea luzatzen diete beraiekin harremanetan jartzeko. Taldea dagoeneko lanean hasi da eta hainbat datu eskuratu ditu abiapuntutzat, besteak beste fusilatuenak, Lasarten gertatutakoak zein beste herrietan bizi ziren lasarteoriatarrenak.

Taldearen aurkezpena Villa Mirentxun egingo da ostegunean 19:30ean. Iñaki Egaña historialariak "1936ko gerra Lasarte-Orian" hitzaldia eskainiko du bertan.

Aitzol Lasa Arramazka taldeko gitarra jolea

“Arramazkan beti gaude dantzan”

Amalur musika eskolan eta Gure Etxea tabernan salduko dute Argilunpetan disko berria
Aurkezpena udaberrira atzeratu dute musika taldeko kide baten osasun arazoa dela medio

Aitzol eta Aroa Lasaren Arramazka taldeak Argilunpetan izeneko diskoa kaleratu du, baina taldeko bati egin dioten ebakuntzaren ondorioz, udaberrirako atzeratu dute 9 kantu jasotzen dituen lan autoproduziaren aurkezpena. Dena den, Amalur Eskolan eta Gure Etxea tabernan salgai dago disko berria 10 eurotan erosi nahi dutenentzat. Arramazkak bideo klipa ere prest dauka zabaltzeko.

Jon ALTUNA IZA

Urte eta erdiko lanaren ondoren Arramazka taldeak uztailean grabatu zuen Iruñean disko berria. Aitzol Lasarekin mintzatu gara

Arramazkaren lan eta bide berriari buruz.

Argilunpetan izen adierazgarria da disko biarentzat... Lehen CDa 2010ean atera ondoren, ia bi urte jotzen aritu

eta jendea gustura bazen ere, konturatu ginen ez zela hori egin nahi genuena; Iruztungo azken kontzertuan teklaturia ikusleen atera bota eta txikitu egin genuen.

Kontzertu baten ondoren Andoni bateria jolea, Mikel Gorku tekla eta biolin jolea eta hirurok, Zarautzen malekoian txosnetan ginela, disko berria egin behar genuela aipatzen hasi eta orduan atera zen lehen aldiz “Argilunpetan” kontzeptua. Hemen Gipuzkoan batzuetan erabiltzen da “argi ilunpetan”, “kontuz ilunpetan” esanahiarekin...

Beste esanahi bat ere badu, gaztelazko penumbra...

Bai, hori da. Hitz jokoa erabili genuen. Betiko dikotomia existentziala, ona eta txarra, zuria eta beltza, iluna eta argia... Ez genuen kanta sorta bat egin nahi, 10 kantu desberdin sortu, CD batean jarri eta kitto. Kanpek beraien artean lotura edukitzea nahi genuen, atmosfera bat sortu. Eta argilunpetan izan zen inspirazio iturria.

Kanta guztietan nabari da, musika argia denean, letra dela goibelagoa, edota musikaren melodia eta armonia astunagoa denean, mezu dela argiagoa. Etengabe ari da argia eta ilunarekin jolasten; diseinua ere zuribeltzean da, soilagoa edo sinpleagoa egin nahi genuelako.

Hasieratik, musika doinu eta letra denak sortu ditugu lana Argilunpetan izango zela pentsatuz. Iazko udan hasi, 2011n, eta urtebeteko lanaren ondoren abuztuan amaitu dugu diskoaren grabaketa.

Taldean sortu al duzue musika eret?

Suerte handia daukagu. Esperientzia kolektiboak edozein alde-tatik dinamitzen dira normalean.

Ba gu, bost lagun elkartu gara momentu batean Arramazka egiteko gogoarekin. Adibidez,

baxu joleak beste musika proiektu batzuek utzi zituen Arramazkan sartzeko, bera, Aroa eta hirurok Gasteizera joan gara aurreko asteburu oro, egun osoko entseguak egitera. Talde bat egin dugu baita musika sortzerakoan ere.

Gainera, Aroak poesia oso sakona egin du eta horrek asko lagundu digu.

Letrak Aroarenak al dira?

Bai, gehienak bereak dira, bat nirea da eta gero Omar Jayam, XI-XII mendeko jakintsu eta idazle persaren poesia bat sartu dugu. Lau bertoko Rubaiyat poesia laburrak idatzi zituen, Japongo Haikuen antzekoak.

Hitz jokoak gustuko dituzue: ezin-esan, lautada taupadan, zoroen zauri zuria?

Bai, ez da kasualitatea, deliberratu da erabat. Hizkuntzarekin jolastu egin dugu. Musika sortzea hain berezia izanda iraingarria eginen zait gero hain letra eskasekin jantzia

ikustea, gaur egun, dena espizituki eta askotan modu desatseginear gainera. Arramazkan beti saiatu gara letrei berea ematen.



Sentimendu unibertsalak dira, baina euskaraz, gure leihotik edo kosmosiotik ikusiak. Era berean, oso irakiek ere badira.

Etapa berri honetan zer bait al da aurreko diskotik?

Zuzenekoan aurreko disko kanta batzuk eskainiko ditugunosti, eta disko hau ixten duen kanta lehenengo disko “Sorginak Garelako” kantua jatorrizko bertsoa da.

Dena den, Arramazka Arramazka da. Lehenengo disko entzun zuenak bigarrenean Arramazka identifikatuko du, batez ere Aroaren ahotsarengatik, piano eta biolinaren interakzioarengatik.

Berezia da distorsio horiek entzutea, honelako talde asko ez dago Euskal Herrian.

Arramazkak gure bizitzan lekutxo bat egin du, musikari eta euskal sortzaile egiten gaitu. Hala ere, musikan adituek ez digute kasurik egingo

Himnoren bat baduzue jada herriko gazteboen artean...

Kontua da herriko dantzari gazteboek koreografia prestatu zutela eta mundu guztiak eza-gutzen duela “Panoptikoa” kantua, hain juxtu, panoptikoa, kontrol sozialaren esperimentu latzenetarikoa da.

pentsatu genuen, aukera ona ikutzen genuelako, baina Mikelen arazoak dena atzeratu du: Baina Gasteizen, Agurainen eta inguruan ere badauka arrakasta Arramazkak.

Euskal Herriko musika taldeen artean ezagutarazten orduan...

Ez, ez dut uste. Hemengo musika-etxeek babestu eta bulzutatuko taldeak daude, baliabideak dauzkatenak, eta horien aldean, gu ia ez gara existitzen musika talde bezala, arramazkaze batentzat ez bada.

Euskal Herrian lekua guk egin dugu, letra larri; euskara hutsean egin dugu “Argilunpetan” diskoa; musikariak gara, proiektu honen baitan ez bagina bildu, taldea ez zen existituko, eta ez ginen musika sortuntzan arituko. Eta batez ere Arramazkak gure bizitzan lekutxo bat egin du.

Arramazkak gaur egun musikari egiten gaitu, euskal sortzaile egiten gaitu.



Estilo mailan finkatuta al duzue zuen musika?

Estilistikoki oso anitza da hau, denetarik dago, inditiek metal astunera... talde asko ikusi ditzakezu bakar batean.

Harrera ona izan du diskoak?

Bai, orain dela oso gutxi kale-ratu dugu, baina guretzako izugarria izan da eta inguruko ere asko gustatu zaie.

Dena den, musika adituek ez digute kasurik egingo. Begira zer gertatu zaion Zea Mays-i. 15-17 urtean sekulako diskoak atera ditu, baina inork ez dio kasurik egin “Era” atera arte.

Gure ustez, Arramazkaren arrakasta erabatekoa da, “Argilunpetan” erreallitatea da, euskal kulturintzari gure ekarpena egin diogu.

Zea Mays-eko Aiora Renteriak kantatzen du abesti batean, beste kolaboratoririk izan al da? Gartxo gure Donostiako lehengusua ere kantatzen du zazpigarren abestian. Yaw-eko abeslaria eta Madeleineko gitarra jolea da.

Bideo klipa grabatzeko laguntza tekniko handia izan dugu, Aroa ageri da dantzan eta Isabel Verdini irakasleak lagundu dio koreografia egiten.

Promozio bideoan dantzan ageri da Aroa abeslaria...

Bai, Arramazkan beti gaude dantzan, dantza talde bat gara. Berri Txarrak-ek “haria” kantan dio: “eta denok dantzatzera behartuta gaude, aurrera egiteko hariaren bila”. Dantza egitea mugitzea, sortzea... da. Arramazkan beti gaude dantzan.

Arramazka izena hartu duzue...

Atximurka ere gustatzen zitzagun, baina azkenean harramazka, baina h-rik gabe aukeratu genuen.

BADIRA ATE BAT IREKITEAZAN HASTEN DIREN AMETSAK.

“IKASITAKOAK EGUNERO PRAKTIKAN JARTZEA ZUK GUSTUKO DUZUN HORRETAN, HORI DA NIRE AMETSA!”

Lorea Mendizabal, Gastronomía eta Sukaldaritza Arteetako 2.mailako ikaslea.

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK

Goi Eskola Politeknikoa

ARRASATE · **ABENDUAK 15** larunbata, 10:30

Enpresagintza Fakultatea

OÑATI · **ABENDUAK 13** osteguna, 18:00

BIDASOA · **ABENDUAK 15** larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea-Basque Culinary Center

DONOSTIA · **ABENDUAK 15** larunbata, 10:30

Ate Irekiak ONLINE

ABENDUAK 18 asteartea, 18:30
<http://mukom.mondragon.edu/mutt>

ARETO NAGUSIAN

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI ↓

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Elkarrizketa osoa txintxari.info webgunean

ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irrastailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33- 610 45 93 45

Zergatik gaude BETI prestatuta lan-merkaturako? Emakume asko ari direlako gure oinarritzko beharrak egunero atenditzen.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako II. Foru Plana

Gipuzkoa BERRIA

berdintasuna**
egiteko asko
www.berdintasuna.tv

OSTADAR.-

Bazkide kanpaina abian jarri du Ostadar SKT-k

Abenduaren 21an amaituko da ekintza. Lizentziak berritu edo eskatzeko epea ere ireki du elkarteak

Ostadar Saiarre kirol taldeak gaur emango dio hasiera bazkide kanpaina berriari. Abenduaren 21a arte egongo da irekia kanpaina. Ostadarrek eskerak ematen dizkiete herritarrei haien babesarema-tegatik.

Ostadar SKT-k bazkide kanpaina berria jarriko du gaur martxan. Elkarteak kirol arlo desberdinetan dituen taldeak aurrera ateratzeko bazkideen berrera du eta horregatik, kirol egitasmo honen partaide izatera gonbidatzen ditu herritar guztiak.

Era berean, babesarema ematen duten herritarrei bihotzez eskertu eta elkartearekin lanean jarraitzea animatzen dituzte elkarteko arduradunek, "kirol egitasmo hau gauzatu ahal izateko zure diru-laguntza ezinbestekoa baita".

Honela, elkarteak abenduaren 21 arte bazkide berriei izena emateko aukera izango dutela jakitera eman du.

Kuota

Bazkideztza kuota helbideratu-

ta dutenei urtarillaren 8an kobratuko dietela aurreratu du Ostadarrek.

Beraz, bazkideek daturen bat aldatu nahi izanez gero, abenduaren 20a baino lehen Ostadarreko egoitzatik pasa behar dutela jakitera eman du elkarteak.

Oraindik helbideratu gabe badute etxera iritsirako eskutitza bete eta Ostadarreko egoitzan utzi behar dute bulegoko ordutegian, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

Lizentziak

Bestalde, Ostadar SKT-k jakin arazten du, mendiko edo zikloturista lizentzia lehenengoz eskuratu edo berritu nahi duten herritarrek abenduaren 21a baino lehen egin behar dutela.

Kirol elkarteak gogoratu nahi du egun indarrean dau-



Ostadar SKT-ko sail desberdinetako lagunak elkarteko bazkide txartelarekin.

den legeak direla eta, eskia-tzaile, mendizale edo mendi krosetako korrikalariak federatuak egotea komeni dela. Gipuzkoako Mendizale federazioko orrialdean aurki daiteke informazio osoa eta 2013 urteko lizentzien tarifak ere bertan daude.

Lizentzi hauen informazioa jaso eta izena emateko, Ostadarreko egoitzara hurbildu behar dute interesatuek

edo 943 360 433 zenbakira deitu.

Otarra eta loteria

Honetaz gain, urtero bezala, Ostadar SKT-k otar bat zozketatuko du bazkide guztien artean.

Irabazlea abenduaren 21n emango da jakitera. Ostadar SKT-ko egoitzaren atean eta www.ostadarskt.org helbidean egongo da ikusgai zen-

baki irabazlea.

Bestetik, aurten ere gabonetako loteria jarri du salgai elkarteak, 65.667 zenbakia. Erosi nahi duenak bulegoan eta Aldatzekua taberna salgai aurkituko du.

Bulegoa itxia

Era berean, Ostadarrek jakinarazten du, bulegoa abenduaren 24tik urtarillaren 7ra arte itxia egongo dela.

JUDO.A.-

Sagasti Gipuzkoako txapelkun

Igandean Gipuzkoako senior txapelketan lehiatu ziren LOEko judokak eta ederki ibili ziren. Asier Sagastik urrezko domina eskuratu zuen eta Esteban Martinez eta Josu Olmosek hirugarren amaitu zuten lehiaketa. Asier Sagasti 90 kilo azpiko mailan bi borroka irabazi ondoren lortu zuen lehen postua.

73 kilo azpiko mailan, Esteban Martinezek hiru borroka irabazi eta bat galdu zituen eta Josu Olmos-ek 60 kilo azpiko mailan bi norgehiagoka irabazi eta bat galdu zuen. Biek brontzezko domina eraman zuten etxera.

Emaitza hauen ondorioz, LOEko hiru judokak abenduaren 16an, hurrengo igandean izango den Euskadiko txapelketarako sailkatu dira.

Era berean asteburu honetan Angelun izan dira lehiak.

Topaketa

Bestalde, infantilek eskola



Gipuzkoako txapelketan eta topaketan izan ziren judokak. Sagasti, eskubitik hasita lehena da.

kiroleko lehenengo sailkapen saioa izan zuten. Honetan Jorge Revuelta hirugarren izan zen eta Mikel Lasa, Eneko Eizagirre eta Ibai Tamayo bosgarren izan ziren bakoitza bere mailan.

Azterketak

Eta hau guztiaz gain, Gorka

Aristegi entrenatzaileak jakitera eman digunez, Oscar Garrido eta Fermin Balda gaztetxoek 15 urterekin lortu dute gerriko beltza.

Gainera, azaroaren 15ean, alde praktikoa gaudituz ostein, LOEko Amaia Curielek epaile titulua eskuratu zuen.

IGERIKETA.-

Mitxelena eta Tolosa ederki Espainiako txapelketan

Azaroaren 30etik abenduaren 2ra bitartean, Espainiako LV. Neguko Txapelketa ospatu zen Palma de Mallorcaren. Honetan Buruntzalde IKT-ko Haitz Mitxelena eta Itsaso Tolosa izan ziren lehiaketa eta Tolosak marka pertsonala eta taldeko errekor berria ezarri zuen 200 bizkar proban.

Buruntzaldea IKT-ko bi igerilariak larunbatean izan zuten proba. Lehiatzen lehena Haitz izan zen.

Borja Apeztegia entrenatzaileak aipatu digunez, "oraingoan ere bigarren zatia amaitzea kostatu bazitzaion ere, duela bi aste Santurtzin baino hobeto ibili zen. Azkenean, 2'16"52 egin zuen Santurtziko 2'18"a hobetuz. Horixe zen espero genuena, beraz, gustura".

Itsasok aldiz arratsaldeko saioan egin zuen igeri. Apeztegia entrenatzaileak aipatu digunez, urduri atera arren,

emaitza ona lortu zuen 200 bizkar proban. "Bere frogan gehiago eman bazezakeen ere, azken partziala izan zen azkarrena, gustura atera ginen denboraldiko momentu honetan bere marka hobetzen ikusi genuelako", adierazi du entrenatzaileak.

Izan ere, aurreko denboraldian igerileku laburrean egindako 2'25"43a 2'24"27an utzi zuen, marka pertsonala eta taldeko errekorra eginez.

Kirol Zehaztasuna

Bestalde, taldeko gaztetxoak ere ederki ibili ziren Tolosan izandako Kirol Zehaztasuneko lehen jardunaldian.

Nahia Jie Villamedianak 100 m. bular eta 200 m. bizkar probetan lehenengo postuetan izan zen, baita Leire Martin ere.

Honetaz gain, nesken 4x50 m. erreleboak ere marka ona egin zuen.

— Agenda —

Osteguna 13, 21:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



Erabakitzeo eskubidea

Ostegun zinea atalaren barruan, Jon Maia bertsolariak zuzendutako "Gazta zati bat" dokumentala eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Dokumental hau Idiazabalgo Nazioen Mundua herri ekimentera aurrera eramandako lanean oinarritzen da euskal gatazka era berritzailean aurkeztuz. Giza faktorea azpimarratzen du eta estereotipoetatik aldentzen da. Sarrerak leihatilan, 4,40 euro; internetez, 4 euro. Euskaraz

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Astearte 18, 19:00etan

Udal Musika eskolak Gabonetako kontzertua eskainiko du.

Hitzaldia

VILLA MIRENTXU
Osteguna 13, 19:30ean

Islada Ezkutatuak, Lasarte-Oriako oroiaren historikoaren aldeko taldearen aurkezpena izango da. Honetan taldea ezagutzera emateaz gain, Iñaki Egaña historialariaren "1936ko gerra Lasarte-Orian" hitzaldia izango da.

Diaporama

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Asteazkena 12, 21:30ean

Ostadar SKT-ko mendi saileko lagunak Atlas mendilerroa eta Marokora egindako bidaia azalduko dute. Ttakun K.E.-k antolatutako diaporama saileko saioa da.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 16, 17:00etan

Haurren zinean, "Campanilla y el secreto de las hadas" marrazki bizidunetako filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.



Igandea 16, 19:30ean

"Gazta zati bat" dokumentala eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,50 euro; internetez, 5 euro. Euskaraz

Musika

TABERNA DESBERDINETAN

Larunbata 15, 17:00etatik aurrera
Lasarte-Oriako tabernetan Multimuskalaren edizio berria izango da.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 15, 18:30ean
Zero Sette akordeoi orkestraren 25.

urteurreneko ospakizunekin amaitzeko, Lasarte-Oriako orkestrak, Udal Musika eskolako trikitilariak eta Piazzola Project taldeak emanaldia eskainiko dute.

AMA BRIGITARREN KOMENTUAN

Igandea 16, 12:30ean

Alboka Abesbatzak gabonetako kontzertua eskainiko du Comillas-eko "Brumas Norteñas" abesbatzarekin batera.



Bideoforuma

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astearte 18, 18:00etan

"Cuidadores" dokumentalaren bideo-foruma egingo da. Alzeheimerra duten senideak zaintzen dituzten pertsonen egunerokoa azaltzen da dokumentalean. Udaleko Gizarte Zerbitzuek eta AFAgi elkarteak antolatutako ekintza.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Abenduaren 21era arte, 18:00etatik 21:00etara

Brancussi akademiako ikasle gazteen erakusketa berezia.

— Herritarren txokoa —

Muntteri AEKko mariskada

Muntteri AEK euskaltegiak abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean, mariskada baten zozketa egingo du Okendo plazan, arratsaldeko 20:00etan.

Zozketan parte hartzeko txartelak dagoeneko eskuragarri daude herriko hainbat tabernatan: Artizar taberna, Jalgi Kafe-Antzokia, Ilargi taberna, Aldatzekua taberna eta Arkupe taberna.

Pausoka elkartearen eskerra eta elkartasun egutegia

Pausoka elkarteak eskerrak eman nahi dizkie umeentzat errehabilitazio zentroa osatzeko plastikozko tapoiak bildu dituzten AEK euskaltegia, Muñoz belardenda, Patxi Larrañaga harategia, Landaberri ikastola, Gil botika, Neus ileapaindegia, Biyak Bat erretiratuen elkartea eta herritar guztiak.

Era berean, elkarteak jakin arazten du, elkartasun egutegia egin duela besteak beste Pirritx, Porrotx eta Marimotsotsen laguntzaz eta Muñoz belardendaren eta Uruzola mertzerian dagoela salgai, 7 eurotan.

Batxilergoko tituluak

Lasarte-Usurbil Institutuak 2010-2011 ikasturtean Batxilergoko ikasketak amaitu zituzten ikasleei jakin arazten die tituluak eskuragarri dituztela ikastetxeko idazkaritzan.

Aterpeko Loteria

Aterpea Merkatarien Elkartek Gabonetako Loteria jarri du salgai. Loteriako txartelak elkartea osatzen duten komertzioetan daude eskuragarri.

Lasartearra elkarteak loteria

Lasartearra elkarteak bazkide eta elkarteak lagunei gogora arazten die, Gabonetako Loteria salgai duela.

Loteria txartelak eskuratu nahi dituzten herritarrek elkarteak bulego-ara, Erribera kalea 10 atzealdea, hurbildu behar dira astelehenetik ostiralera 18:00etatik 19:00etara.

Korrika egiteko talde amateurra

Lasarte-Orian korrika egiteko talde amateurra sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Hitzordua, ateri dagoen astelehenean 20:00etan Hipodromoko zubian. Animatu karakolak eta bareak!

— Hemeroteka —

Duela 1037 ale

Takolo, Pirritx eta Porrotxek 1994 urteko abenduan bere hirugarren diska "Ongi bizi" aurkeztu zuten Durangoko azokan. Aitona Xeberio, Saturnino martzianoa... milaka istorio kontatzen zituzten diska horretan. Herriko pailazoen TXINTXARRI-rekin hitz egin zuten lan berri honi buruz.

Diska martxoan eta alai zela aipatu zuten pailazoen, "dantzara gonbidatzen duena".

Elkarrizketan diska grabatzea lan handia izan dela aipatzen zuten, "15 egun egon gara Elkarrreko estudioetan diska grabatzen eta horretaz gain, letrak egin behar dira, doinuak..."

Diska honek zeuzkan sorsak ere aurreratu zituzten, "amona Josefinarekin aitona Xeberio izango dugu eta Saturnino martzianoa. Saturnino Saturnotik Euskal Herrira etorri den martzianoa da, Euskal Herriarekin maitemintzen da, trikitixa jotzen ikasten du, txapela berdea jartzen du eta aldrebes zenbatzen du".

Eta diska egiteko noski hamaika lagunengana laguntza izan zuten Iñaki Salvador, Julen Tokero, Joseba Tapia eta Ordiziako eskolako haurrak.

Garai hartan pailazoen proiektuen artean, margotzeko ipuin batzuk zeuden eta "momentuz ez dugu diska gehiago aterako" zioten.

Eta herrian Olentzero egunean haien saioa ikusteko aukera izango zela aurreratu zuten.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Atlas mendilerroan barrena

Marokoko Toubkal eta Mgoun mendiak igo dituzte Ostadar Mendi saileko lagunak

Ostadarreko Mendi saileko lagunak ez dira bakarrik Euskal Herriko mendietatik barrena ibiltzen. Aurten mendi saileko bi talde Maroko aldean izan dira Atlas mendilerroko gailurrak ezagutzen. Marokoko mendi altunera, Toubkalera, 4.167 m, igo zen taldeetako bat, bestea aldiz Mgoun-era, 4.068m. Bidai hauei buruz gehiago jakin nahi duenak, astezkenean Jalgi-Kafe antzokian, 21:30etatik aurrera eskainiko duten diaporamara hurbil daiteke.

Ostadar Mendi saileko kideak Atlas mendilerroan barrena ibili dira uda honetan. Lehenengo taldea uztailean joan zen Toubkal mendia igotzera, bigarrena berriaz, irailean izan zen Mgoun mendia eta inguruak ezagutzen.

Uztaileko taldeak zortzi egunetako bidaia egin zuen eta Atlas mendilerroan bailaraz bailara trekking-a egin eta 3.000 metroko mendixkak igo zituzten, baita Toubkal 4.167 metroko mendia ere.

"Ibilbide zirkularra egin genuen herrixkaz herrixka, hauetan lo egin eta hurrengo

egunean mendia igo," azaldu dute.

Gida eta sukaldariaren laguntzaz egin zuten bidaia eta 4 edo 5 egunetan zibilizazio edo kotxerik ikusi gabe egon zirela azpimarratu dute.

"Gainera, hango herrixketan emakumeak lanean ikusten ziren eta gizonak egonean zeuden. Hemen duela 70 urte bizi ziren moduan bizi dira bertan", adierazi digute.

Iraileko taldeak, berriaz, Mgoun mendia igo zuen Atlas mendilerroan eta gero hegoaldera egin zuten Todran eskalada egiteko.

Taldeko kideek aipatu



Emakumeek ibaian arropa garbitu eta eguzkitan harrien gainean lehortzen dituzte.

OSTADAR SKT MENDI SAILA

digutenez, mendira iristeko 4x4ak izan zituzten "baina lehen ez zegoen pistarik eta iristeko oinez egin behar zen bidea".

Honela egunero 4 edo 5 ordu ibiltzen ziren aterpetik

aterpera eta Mgoun mendia igo eta jaisteko 7,5 ordu behar izan zituztela aipatu digute, baita bertan elurra aurkitu zutela ere.

Gainera, Atlas mendilerroan kontraste handia dagoela

azpimarratu dute bai inguruan, baita bizitzeko moduan ere.

Hau guztia eta gehiago astezkeneko diaporaman kontatuko dute Ostadar SKT-ko mendizaleek.



Usurbilgo OIARDO Kiroldegian

2012ko abenduaren 22an, bi saio:
16:00etan eta 18:30etan

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

"Sentitu, pentsatu, ekin!"
lan berriaren aurkezpen emanaldia

Sarrerak: aurretik 7 euro / egun berean 8 euro
(12 hilabete arteko haurrak doan)

Salmenta puntuak: Zarautz (Txiki Polit)
Zumaia (Turismo bulegoa)
Lasarte (Artizar)
Hernani (Leokadisti)
Usurbil (Bordatxo, Marije eta kiroldegia)

Antolatzailea: ARGIAren Adiskideak Usurbilgo Taldea.